

2021

KOMUNIKAZIO BERDINZALEA: gida ez sexista.

UDALEKO KOMUNIKAZIO BARNERATZAILEA ETA EZ-SEXISTA
IZATEKO GIDA



AURKIBIDEA

I. SARRERA	2
II. ZERGATIK LANDU BEHAR DA KOMUNIKAZIO BERTINZALEA?	2
III. ARAUDI MARKOA	3
IV. KOMUNIKAZIO BERTINZALERAKO GAKOAK	4
1. “Gizona”: erabilera espezifikoa.....	4
2. “Giz”-erroaren erabilera generikoa.....	4
3. “Gizona” hitz elkartuetan.....	4
4. Generoa daukaten izenak.....	5
5. Generoa daukaten izenen plurala edo generikoa.	5
6. “-sa” bukaerako femeninoak.	5
7. Gaztelaniatik maileguak.....	6
8. Generorik gabeko izenak.....	6
9. Lanbideak genero bakar batekin identifikatzen saihestea.	6
10. Maskulino generikoa saihestea.	7
11. “Jauna” izenaren erabilera saihestea.....	7
12. Emakumezkoak eta gizonaezkoak modu berdintsuan tratatzea.....	7
V. GAZTELANIAZ AKATSIK OHIKOENAK EZ EGITEKO GAKOAK	8
1. Maskulino generikoa saihestu.....	8
2. Subjektua alde batera utzi.....	8
3. Izenordainak eta artikulua alde batera utzi edo ordezkatu dira.	9
4. Sustantibo generikoak edo kolektiboak eta sustantibo abstraktuak erabiliko dira.....	9
5. Forma bikoitzak.....	10
6. Generiko faltsuak ez erabili.	10
7. Adierazpen neutroak edo pertsonalizatuak erabiltzea.....	10
8. Idazki edo inprimaketan formula neutroak erabili.	11
9. Simetriaren araua.....	11
10. Adibideak:.....	11
- “Persona”rekin lotutako adibideak:	11
- “Parte”rekin lotutako adibideak:.....	12
- “Personal”ekin lotutako adibideak:.....	12
VI. IRUDI BIDEZKO KOMUNIKAZIO EZ SEXISTA EMATEKO JARRAIBIDEAK	13
VII. BIBLIOGRAFIA	14

I. SARRERA

Hizkuntza, gizakiok komunikatzeko sistema da eta honen bitartez ideiak, pentsamenduak eta sentimenduak adierazten ditugu, errealitatea irudikatuz. Honen bitartez, gure pentsaera eta garapen pertsonala zein soziala baldintzatzen dituzten balioak islatzen dira eta hizkuntzaren erabilera sexista eta androzentrikoa egiten da¹.

Izan ere, arazoa ez da hizkuntza bera, baizik eta bere erabilera. Gizarte sexista eta androzentriko batean bizitzerakoan, hizkuntzaren erabilera ere horrelakoa da. Baina, hizkuntzaren sexismoa ez dago hizkuntzaren baitan baizik eta hiztunen hizkeran.

Horretarako, hizkuntza edo hizkera inklusiboa bultzatu behar da, diskriminazio ardatzak baztertzen dituelako.

Ondorengo proposamen edo gakoekin, hizkuntza sexista gainditzeko urrats txiki bat eman nahi da, errealitatea eraldatzeko eta baita, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko harremanak aldatzeko.

II. ZERGATIK LANDU BEHAR DA KOMUNIKAZIO BERDINZALEA?

Komunikazioa berdinzale bat sustatzea beharrezkoa da, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko. Erakundeok eredugarri izan behar dugu honetan.

- Herritarren artean diskriminaziorik ez eragiteko. Hau da, gure komunikazioak berdintasunean oinarritutako balioak islatu behar dituelako.
- Herritarren artean gutxiesteak ez emateko eta denei trataera eta balio bera emateko.
- Emakumeei beraien espazioa eta behar duten garrantzia emateko.

¹ **Sexismoa:** patriarkatuan erabilitako metodoetako bakoitza eta batera osatzen duten multzoa da; metodo horien ondorioz, pertsonen sexuaren arabera pribilegioak ematen zaizkie edo bereizi egiten dira, eta ez zaie uzten daukaten giza gaitasuna garatzen.

Androzentrismoa: hipotesi honek gizonezkoen dagozkion berezotasunak eta ezaugarriak unibertsoren ardatz, errealitatea aztertzeako parametro eta giza esperientzia unibertsal gisa hartzen ditu. Gizateria gizonekin nahasten du. Sexismo mota bat da eta agerian jartzen da batez ere emakumeak ezkututzen dituelako eta definitzen ez dituelako.

Iturria: Terminoaren glosarioa. Emakunde.

https://www.emakunde.euskadi.eus/u72contema/eu/contenidos/informacion/glosario/eu_gizonduz/glosario.html

- Gizarte tradizionaleko rol eta genero estereotipoekin amaitzeko, gizarte berdintsu bat eraikiz.
- Komunikazioaren erabilera berdintsua sustatzea, gizarte balioak eraldatuz, sexismoa eta androzentrismoa alde batera utziz.
- Bermeko Udala eredu izan behar da, berdintasuna gure balioen artean dagoelako eta gizarte parekidea lortzeko konpromisoa dugulako.
- Berdintasunaren alde lanean jarduteko bidea eraikitzen jarraitu behar delako.

III. ARAUDI MARKOA

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko, politika publikoen esparruan arauak eta gomendioak garatu dira.

NAZIOARTEAN

- UNESCOren 1987 eta 1989ko biltzar orokorretan diskriminatzailea ez den hizkuntzaren erabilerarako estrategiak martxan jartzea eskatzen zaie gobernuei.

EUROPAN

- Gomendio europarra, 1990eko otsailaren 21ekoa, hizkuntzan sexismoa deuseztatzeari buruzkoa, eta administrazio-testuei berariazko aipamena egiten diona.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

- 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, komunikazio sexistaren erabilera debekatzeko duena.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana:berdintasuna komunikazioan txertatzeko garrantzia adierazten du.

BIZKAIA

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2018 FORU AGINDUA, ekainaren 20koa.
“Euskal herri-aginteez ez dute hizkera sexista erabiliko, ez zuzenean, ez beste pertsona edo erakunde batzuen bitartez sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan”.

BERMEO

- Bermeoko Udalaren II. Berdintasun Plana, non Udalak komunikazio berdinezalea bermatzeko estrategia zehazten duen.

IV. KOMUNIKAZIO BERTINZALERAKO GAKOAK

1. “Gizona”: erabilera espezifikoa.

Askotan, “gizon” hitza modu generikoan erabiltzen da, eta ez modu espezifikoa. Emakumeak eta gizonak izendatzeko erabiltzen da eta hori egitean, emakumeak gutxiesten ditugu. Horregatik erabilpen egokia, “pertsona” edo bi generoak aipatzea litzateke. Gizon hitza soilik esanahi espezifikoa erabiltzea proposatzen da.

OKER

- Gizonaren ohiturak.

ZUZEN

- Pertsonen ohiturak/Emakume eta gizonen ohiturak.

2. “Giz”-erroaren erabilera generikoa.

“-giz”-erroa zentzu generikoan erabiltzea desegokia da. Izan ere, “giz”- erroak askotan maskulinoari egiten baitio erreferentzia.

OKER

- Gizakia.
- Gizartea.

ZUZEN

- Jendea/Pertsona.
- Sozietatea/Jendartea.

3. “Gizona” hitz elkartuetan.

“Gizon” atzizkia ezin da generiko bezala erabili, gizonezkoei baino ez baitie erreferentzia egiten. Orduan, talde anitz bati edo ezagutu gabeko generoko pertsona bati erreferentzia egiten bazaio, “gizon” osagaiaren ordez “-ari” atzizkia, eta “langile” eta “pertsona” hitzak erabiliko ditugu.

OKER

- Legegizona.
- Enpresa-gizona.
- Kultur gizona.
- Itsasgizona.

ZUZEN

- Legelaria.
- Enpresaria.
- Kultur-pertsona.
- Itsas-langilea.

4. Generoa daukaten izenak.

Euskaran hainbat izenek generoa daukate eta horietako askok pertsoneri egiten die erreferentzia.

emakumea, emakumezkoa, andrea, emaztea, neska.../gizona, gizona, senarra, jauna, mutila...

Horrez gain, senidetasuna adierazten duten generodun beste izen batzuk ere badaude:

ama, amona, izeba, alaba, ahizpa, arreba... / aita, aitona, osaba, semea, anaia, neba...

5. Generoa daukaten izenen plurala edo generikoa.

Kaleko hizkeran maiz plurala osatzeko izen maskulinoak erabiltzen dira modu generiko gisa eta horregatik, generoa daukaten izenen plurala desegoki erabiltzen da. Orduan, izen femenino eta maskulinoak erabili behar dira:

OKER

- Zenbat seme dituzu?
- Zure aitonek oparitu dizute?
- Zure aitak etorri dira?
- Eskolako maisu guztiak.

ZUZEN

- Zenbat seme-alaba/ume dituzu?
- Zure aitona-amonek oparitu dizute?
- Zure gurusoak/aita-amak etorri dira?
- Eskolako irakasle/maisu-maistra guztiak.

6. “-sa” bukaerako femeninoak.

“-Sa” atzizkia erabiltzeak ondorio bat dauka: “-sa” atzizkirik gabeko izena maskulino bihurtzen du. Beraz, generoa zehaztu nahi bada, neska/mutil edo gizon/emakume erantsi behar da.

OKER

- Alkatesa bisitan etorri da.
- Aktorea onenaren saria jaso du.

ZUZEN

- Alkatea bisitan etorri da.
- Aktore onenaren saria jaso du.
- Mutil dantzari/Alkate andrea (generoa zehaztu nahi denean).

7. Gaztelaniatik maileguak.

Gaztelaniatik etorritako hainbat hitz erabiltzen dira eta gehienetan atzizki femeninoarekin hartu dira inolako aldaketarik egin gabe; esaterako, adjektiboak eta lanbideen izenak daude. Gehienetan maila informalean erabiltzen dira.

Horrez gain, gaztelaniaz maskulino orokortzailea saihesteko “pertsona” hitza erabiltzen da, baina euskaran ez da beharrezkoa “pertsona” hitza erabiltzea, nahiz eta askotan horrela egin.

OKER

- Oso langile maja da.

ZUZEN

- *Oso langile jatorra da.*

8. Generorik gabeko izenak.

Euskaran sustantibo gehienek ez daukate generorik, baina generorik gabeko izenak entzutean edo irakurtzean, nortaz ari den jakin gabe, zer irudi etortzen zaigu gogora, emakume bat edo gizon bat?

Erizaina, igeltseroa, idazkaria, jostuna, artzaina, haur-zaina, telefonista, sare-konpontzailea, garbitzailea, emagina, suhiltzailea, iturgina, zurgina, urpekaria, ugazaba, abeltzaina...

Kasu askotan gertatu daiteke geuk mentalki generoa jartzea. Beraz, generoa adierazi nahi badugu, zehaztu beharko dugu:

emakume zuzendaria, gizon zuzendaria, emakume suhiltzailea, gizon dantzaria...

9. Lanbideak genero bakar batekin identifikatzen saihestea.

Gure gizartean lanbide eta kargu jakinak sexu batekin edo bestearekin erlazionatzen ditugu. Kontuan izan behar dugu, lanbide edo zeregin guztiak bai emakumeek zein gizonek egin ahal dituztela.

EMAKUMEAK eta GIZONAK

- Sendagileak, futbolariak, arkitektoa, nagusia, suhiltzailea, okina, idazkaria, ile-apaintzailea, garbitzailea, polizia...

10. Maskulino generikoa saihestea.

Gehienetan, emakume eta gizonen taldeak izendatzeko maskulino plurala erabiltzen da. Maskulino plurala erabiltzerakoan talde horretan emakumeak ez dira barneratzen eta ez dira taldeko kide sentitzen. Denok taldearen parte sentitzeko, bikote-izenak erabiliko dira.

OKER

- Zuen semeentzako.
- Kaixo, jaunak!
- Erregeak.

ZUZEN

- Zuen seme-alabentzako.
- Kaixo, jaun-andreak.
- Errege-erreginak.

11. “Jauna” izenaren erabilera saihestea.

Agiri administratibo askotan, mezua zeini zuzentzen zaion jakin ez arren “jauna” izena erabiltzen da. Hortaz, jaun-andre bokatiboa edo ezer ez erabiltzea proposatzen da.

OKER

- Zuzendari/Alkate/Sailburu jauna:

ZUZEN

- Zuzendari/Alkate/Sailburu jaun-andrea:
- Zuzendaria/Alkatea/Sailburua:

12. Emakumezkoak eta gizonezkoak modu berdintsuan tratatzea.

Modu berdintsuan tratatzeko, emakumeak ezin dira gizonezkoen menpe gelditu eta horretarako, emakumeak ikusarazi egin behar dira.

OKER

- Bi alemaniar eta euren emazteak etorri ziren.
- Gutuna Urrutia jaunaren emaztearentzat da.
- Mikel Agirre eta bere emaztea larri zauritu ziren.

ZUZEN

- Bi bikote alemaniar etorri ziren.
- Gutuna Edurne Uriarentzat da.
- Mikel Agirre eta Malen Bilbao larri zauritu ziren edo senar-emazteak larri zauritu ziren.

V. GAZTELANIAZ AKATSIK OHIKOENAK EZ EGITEKO GAKOAK

Gaztelaniaz ere, hiztunek hizkuntzaren erabilera sexista bultzatzen dute. Horregatik, atal honetan gaztelaniaz hizkuntza inklusiboa bultzatzeko gako batzuk emango dira.

1. Maskulino generikoa saihestu.

Gizon- eta emakume-talde bati erreferentzia egiterakoan, maskulino generikoa ezin da erabili. Izan ere, gehiegizko erabilera horrek, emakumeak baztertu eta ikusezin bihurtzen baititu. Horregatik, desegokia da maskulino generikoak emakumeei ere erreferentzia egiten diela pentsatzea.

Maskulino generikoa nola saihestu:

OKER

- Los ciudadanos de Bermeo.
- Los técnicos del ayuntamiento.
- Los jóvenes de Bermeo.

ZUZEN

- La ciudadanía de Bermeo/ Las ciudadanas y los ciudadanos de Bermeo.
- El personal técnico del ayuntamiento/El equipo técnico/ Los técnicos y las técnicas.
- La juventud de Bermeo/ Jóvenes de Bermeo/Los y las jóvenes.

Pluralak modu generikoan nola erabili:

OKER

- Los alumnos.
- Los políticos.
- Los bermeanos.
- Los migrantes.

ZUZEN

- El alumnado.
- La clase política.
- La población de Bermeo.
- La población migrante.

2. Subjektua alde batera utzi.

Hizkuntza inklusiboa bultzatzeko, perpausaren subjektua alde batera utziko da. Horretarako, “se” forma inpersonala, infinitiboak eta gerundioak erabiliko dira, edota informaziorik gehitzen ez duten maskulinoak alde batera utziko dira.

OKER

- Cuando el usuario solicite ayuda.

ZUZEN

- Cuando se solicite ayuda/Al solicitar la ayuda.

3. Izenordainak eta artikulak alde batera utzi edo ordezkatu dira.

Eraikuntza sexistarik ez emateko, izenordainak eta artikulak genero-markarik ez duten izenordainengatik aldatu beharko dira.

OKER

- Los participantes en los juegos.
- Los titulares de las plazas.
- Los contribuyentes.

ZUZEN

- Quienes participen en los juegos.
- Titulares de las plazas.
- Cada contribuyente.

“El/La” artikulak saihestu ezin direnean eta nahitaz erabili behar direnean, “La/El”ekin tartekatzen joango da.

4. Sustantibo generikoak edo kolektiboak eta sustantibo abstraktuak erabiliko dira.

Bi sexuei erreferentzia egiten dien hitzak edo esamoldeak erabiliko dira. Adibidez, karguak, lanbideak, titulazioak eta abar ordezkatu daitezke horrela.

OKER

- Los políticos.
- El adjudicatario.
- Los trabajadores.
- El firmante.
- El director.
- Los coordinadores.
- La candidatura a alcalde.
- La decisión debe tomarla el/la jefe/a.

ZUZEN

- La representación política o el personal político.
- La empresa adjudicataria.
- El personal/La plantilla.
- La persona que firma.
- La dirección.
- La coordinación.
- La candidatura a alcaldía.
- La decisión debe tomar la jefatura.

Dakigunean **nork betetzen duen dena delako kargua; bere generoa adieraziko** da: *la técnica, la secretaría general, la alcaldesa...* Beraz, *la técnico, la secretario, la médico...* bezalakoak alde batera utziko dira eta forma egokiak erabiliko dira.

Ordea, maskulinorako eta femeninorako forma berbera dagoenean artikulua femeninoa erabiliko da, hala dagokionean:

Alguna estudiante / La miembro más antigua / Una agente...

5. Forma bikoitzak.

Talde mistoei erreferentzia egiteko orduan, bi genero gramatikalak erabili daitezke, emakumeak ikusarazteko. Horretarako, ordena txandakatzea komeni da.

- *Los y las trabajadoras del ayuntamiento.*
- *Las técnicas y los técnicos de las áreas.*

6. Generiko faltsuak ez erabili.

Generiko faltsuak, gizonak eta emakumeak biltzen dituzten hitzak izan arren, genero maskulinoari bakarrik egiten die erreferentzia. Mota ezberdinak daude, eta batzuetan generiko faltsuak bezala ageri direnak ez dira, eta horiek saihestu egin behar dira.

OKER

- Hombre.
- Derechos del hombre.

ZUZEN

- Humanidad, ser humano...
- Derechos humanos.

7. Adierazpen neutroak edo pertsonalizatuak erabiltzea.

OKER

- Colaboradores.
- Redactores.
- Bienvenidos.
- Ha habido 10 candidatos.
- Autores: Onditz Zabala y Jon Etxeita.
- Los jueces no saben cómo tratar este tema.
- Es necesario tener formación de mediador.

ZUZEN

- Con la colaboración de.
- Redactado por.
- Os damos la bienvenida.
- Ha habido 10 candidaturas.
- Tutoría: Onditz Zabala y Jon Etxeita.
- La justicia no sabe cómo tratar este tema.
- Es necesario tener formación de mediación.

8. Idazki edo inprimaketan formula neutroak erabili.

Hizkuntza inklusiboa bultzatzeko formula neutroak erabili behar dira.

OKER

- Sr./Sra.
- La/El solicitante.
- Nacido/a en:
- Domiciliado/a en:
- Licenciado/a en:
- Originario/a de:

ZUZEN

- Nombre:
- Apellidos y nombre:
- Lugar de nacimiento:
- Domicilio:
- Con licenciatura de:
- País de origen:

9. Simetriaren araua.

Mezuen bidez transmititzen den sexismoari erreparatzeko, estrategia erraz bat dago eta kasu askotan ondo funtzionatzen du. **Simetriaren araua:** susmagarria den hitza edo esaldia beste generoari aplikatuko zaio ea egokia den jakiteko. Esaldia desegokia bada, erantzuna sexista da, eta, beraz, aldatu egin behar da.

Hasierako adibidea: la plantilla la componen dos funcionarios y tres mujeres.

Simetria araua aplikatzen da: la plantilla la componen dos funcionarios y tres hombres.

Aplikazio zuzena: la plantilla la compones dos funcionarios y tres funcionarias.

10. Adibideak:

- “Persona”rekin lotutako adibideak:

OKER

- Los afectados.
- Los adultos.
- Los beneficiarios.
- El interesado.
- El usuario.

ZUZEN

- Las personas afectadas.
- Las personas adultas.
- Las personas beneficiarias.
- La persona interesada.
- La persona usuaria.

- “Parte”rekin lotutako adibideak:

OKER

- El arrendatario.
- El contratante.
- El demandante.

ZUZEN

- La parte arrendataria.
- La parte contratante.
- La parte demandante.

- “Personal”ekin lotutako adibideak:

OKER

- Las enfermeras.
- Los trabajadores de administración.
- Las auxiliares de clínica.

ZUZEN

- El personal de enfermería.
- El personal de administración.
- El personal auxiliar de clínica.

VI. IRUDI BIDEZKO KOMUNIKAZIO EZ SEXISTA EMATEKO JARRAIBIDEAK

Irudiek ere jarrera-ereduak eskaintzen dituzte eta horregatik, irudien tratu parekidea bultzatu behar da. Hona hemen gomendio batzuk:

- Irudi guztietan ematen den mezua zaindu behar da eta etnia, adin, ezaugarri fisiko... ezberdinak dituzten pertsonen presentzia baloratu.
- Emakumeen presentzia bultzatu, gizarte aniztasuna aldarrikatuz.
- Emakume eta gizonen parekotasuna bultzatu behar da.
- Espazio maskulinizatu bai feminizatuetan, emakumeak eta gizonak agertzea.
- Emakumeak eta gizonak tradizionalki bete ez dituzten rol eta jardueretan agertzea.

VII. BIBLIOGRAFIA

Barquín, A. (2008). Euskararen erabilera ez sexista. *Gasteiz: Emakunde*.

Emakunde, (2016). Código deontológico y de autorregulación para la publicidad y la comunicación no sexista.

Farapi, SL, Erdu, Agencia para las Asociaciones y el Voluntariado. Guía para el fomento de usos no sexistas en la lengua castellana dirigido a asociaciones. Vitoria-Gasteizko Udala.

Rincón, A. (1988). El lenguaje, más que palabras. Propuestas para un uso no sexista del lenguaje. *Vitoria-Gasteiz, Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer*.

Pulsante. Guía práctica para una comunicación igualitaria.

Steilas, (2016). Komunikazio inklusiborako gida.